2016KO URTARRILAREN 12AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:
Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:
Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.
Manuel Muñoz Morentin jn.
Zuriñe Sáenz Sáenz and.
Mikel Herrador Iriarte jn.
Juanjo García de Acilu Pérez jn.
María Asun Quintana Uriarte and.
Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Olveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

BERTARATU EZINA ADIERAZTEN DU:
Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hamabia izanda, hemeretziak eta lau zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2015eko abenduaren 1eko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaien Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
200	2015/11/30	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
201	2015/11/30	BANKU-TRANSFERENTZIAREN ONESPENA
202	2015/11/30	OBRA TXIKIEN FAKTUREN ONESPENA
203	2015/12/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA LEIHOAK ALDATZEKO FRONTOI KALEAN.
204	2015/12/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA ESTALKIA KONPONTZEKO PLAZA BERRIAN.
205	2015/12/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA EDUKIEN ESTALKIAK JARTZEKO SANTIKURUTZE KANPEZUKO AABB.
206	2015/12/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA ITXIERA-HORMA EGITEKO 458 LURZAILAN 1 POLIGONOAN.
207	2015/12/09	MAILEGUAREN TRANSFERENTZIA ESPTE. 3/2015
208	2015/12/09	OBREN LIZENTZIA EMATEA ETXEBIZITZA EGITEKO EGITEKO.
209	2015/12/10	OBREN LIZENTZIA EMATEA ESTALKIA KONPONTZEKO LA VILLA KALEAN.

210	2015/12/15	LEHEN ERABILERARAKO LIZENTZIA EMATEA ERAS DE ARRIBAN
211	2015/12/17	BANKU-TRANSFERENTZIA
212	2015/12/18	OBREN LIZENTZIA EMATEA TEILATUA BERRITZEKO IBERNALO ERMITAN.
213	2015/12/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA KANPOKO AROTZERIA BERRITZEKO ALTO DEL CASTILLO KALEAN.
214	2015/12/21	PARTZELAZIO-LIZENTZIA EMATEA 776,777,778 LURZATIETAN, 1 POLIGONOAN
215	2015/12/21	2012KO ORDAINSARI GEHIGARRI PARTZIALAREN ONESPENA
216	2015/12/21	UR SANEAMENDUKO ERROLDAREN ONESPENA
217	2015/12/21	FINKA NORMALIZAZIORAKO PROIEKTUAREN HASIERAKO ONESPENA
218	2015/12/21	OKUPAZIO LIZENTZIAREN ONESPENA LA VILLA KALEAN
219	2015/12/21	BANKU-TRANSFERENTZIAREN ONESPENA
220	2015/12/22	UDALAGUNTZA 2015 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA ARGIZTAPENA
221	2015/12/22	UDALAGUNTZA 2015 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA ZOLADURA-OBRA
222	2015/12/22	UDALAGUNTZA 2015 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA JOKOAK
223	2015/12/22	UDALAGUNTZA 2015 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA SOTOA
224	2015/12/22	MADERAS GAMIZEK EJZREN ZERGAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAREN EBAZPENA
225	2015/12/23	BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA IZENDATZEA
226	2015/12/28	BANKU-TRANSFERENTZIAREN ONESPENA
227	2015/12/28	AURREKONTU-ALDAKETA
001	2016/01/08	2016KO URTARRILAREN 12AN OSOKO BILKURA DEIALDIA

Eguneko gai-zerrendaren puntu honetan, larrialdi arrazoiengatik puntu berria sartzea proposatzen da, eta bertaratutakoek aho batez onartzen dute beharrezko bozketa ondoren.

3.- HASIERAKO ONARPENA JAIOTZENGATIKO 2015EKO DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Seme-alaben jaiotzagatik diru-laguntzak ematea arautzen duen 2015eko Udal Ordenantza ikusirik

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren ebazpen-proposamena aurkezten da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Seme-alaben jaiotzagatik 2015eko Laguntza-emate proposamena onartzea administrazio-espedientean jasotako datuen arabera.

BIGARRENA.- Akordioaren berri indibidualki ematea; baita Udalaren iragarki taulan eta www.campezo.eus web orrian ere argitaratu.

4.- ONARPENA "EUSKALDUN BERRIA"REN AINTZATESPENA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Behin 2015 Euskararen Nazioarteko Eguna igarota, non heldutasunean euskarara hurbitzea nahi izan duten pertsonei aintzatespena egin zen, baita ikasteko egindako esfortsua balioetsi ere.

HAKOBA Erakunde arteko Batzordeak proposaturiko konpromisoak ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Udal honek heldutasunean euskarara hurbitzea nahi izan duten pertsonei aintzatespena publikoki adierazteko konpromisoa hartu du; hortaz, kontsultategiko plaza berriari EUSKALDUN BERRIA izendatuko da.

BIGARRENA.- Oraingo akordioa Eudelera bidali HAKOBA batzordera jakinarazteko.

5.- KONTU-HARTZAILEAREN 2015EKO ERAZPEN-OHARREN ETA KONTRAKO TXOSTENEN BERRI EMATEA

ZIOEN AZALPENA:

Abenduaren 30eko 27/2012 Toki administrazioa arrazionalizatzeko eta sostengagarri egiteko legea betez aldatu dira Kontu-hartzailetzak Osoko Bilkurari jakinarazi behar dizkion txosten desberdinek arautzen duten TRLRHL-eko artikuluak.

Horrela, TRLRHL-en 218 artikuluak (27/2013 Legeak aldatuta) ezartzen du:

"Kontu-hartzailetzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitate- aren justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio"

Horregatik guztiagatik, Korporazioko kontu-hartzaile Jaunak adierazten du 2015eko ekitaldian ez dela erazpen-oharrik egin sarrera-gastuen atalean.

6.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotzia den heinean, Gabonetako jarduerak aipatu ditu non Olentzero eta Errege Magoak boluntarioekin antolatu ziren; partehartze handia nabarmendu du, baita hurrengo urteetarako proposamen berriak jaso zirela ere. Era berean, elizan gabon kanten emanaldia egin zen, eta hileko 2an briska eta mus txapelketak Antoñanan. Hurrengo egunetan, elkarteekin bilerak egingo dira urtea antolatzeko.

Inauteriak eta Toribio egiteko bilera izan da, baina azken honi buruz jardun zen. Aurten, pertsonaia berriak gehitzeko asmoa dago, aurrez erakusketa antolatuz.

Astelehen horretan, ETBko saioa grabatu dute, eta hilaren 21ean frontoian ikusiko da. Guztiak partehartzera animatzen da.

Amaitzeko, ludotekan Irene izeneko begirale berria dagoela adierazten du.

Arenaza andreak, Gizarte Gaietarako Zinegotzia den heinean, Gizarte Ongizateko Diputatuarekin izandako bilera aipatu du non arlo horretan udalek duten erantzukizunak jorratu zituzten. Hala ere, etorkizunean izango diren lantaldeetan Entitate bakoitzeko eskumenak hobeto mugatuko dira.

Babes ofizialeko alokairu etxebizitzari dagokionez, hobekuntza batzuk burutu dira eta aste honetan zehar bere lizitazioa doitzen duten oinarriak aurkeztuko dira.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Emplegu Zinegotzia den heinean, Batzorde Ekonomikoaren ekitaldiaren behin-behineko itxiera aipatu du, aurtengo kuota 870€ izango dira. Estatutu berriak prestatzeko beharra aipatu du, kideek aukera guztiak aztertuko dutelarik.

Udal kazetaren inguruan, bizilagunek egindako hainbat proposamen jaso dituzte.

García de Acilu jaunak galdetu du Osoko Bilkuran kazeta martxan jartzeko akordioa onartu zen.

Muñoz jaunak esan du ez duela gogoratzen, baina Idazkari jaunari galdetu dio akordio hori beharrezkoa den. Idazkariak argitzen du ez dela beharrezkoa.

Aipatu du Osoko Bilkuren aretoko holtzak ezabatu direla hauteskunde-programan jaso zuten moduan.

Hurrengo osoko bilkuran, esango du Izkiren egituraketa berria nola geratzen den, bihar bilera dago eta.

Hirigintza Zinegotziari ardura diren hainbat puntu azaldu ditu, hura bertaratu ezin duelako: garbiguneari buruz, obrak hila bukatu baino lehen hasiko direla esan die.

HAPOri buzu, AFAko txostenaren zain daudela esan du.

Izki-ren Patronatuaren bilera egin dela esan du ere, eta hasierako harremana eta ordezkari-aurkezpena izan zirela; datorren otsailaren 26an hurrengo saioa egingo da.

Amaitzeko, Kuadrillako lehenengo bilera egin dela esan du, bertan 2016ko aurrekontua eta kontuak onartu ziren. Herrador jaunak hobeto azaldu dezakeela esan du.

Herrador jaunak esan du jarduna kontinuista nahi dela eta udalek ekarpen ahalik eta txikiena egin dezatela, baina kontuan hartu behar da zerbait egin nahi bada guztien esfortsuak beharko direla.

Muñoz jaunak ezinegona adierazi nahi du Kuadrillako Lehendakariari diru-ekarpenengatik; lehen zegoena bikoiztu egin da. Haren taldeko zinegotzia abstenitu egin zen hori ez delako herritarren aurrean Kanpezutik eta haren talde politikotik erakutsi nahi duten irudia.

Herrador jaunak argitu du esandako Zinegotziak aldeko botoa eman zuela. Gainera akordioak badu azalpen logikoa: izan ere, lehen Kuadrillako Lehendakariak baziren haien Udalerriko Alkateak; hortaz, udal diru-ekarpenak eta Kuadrillakoak batu egiten ziren. Oraingoan, Alkate kargua ez duenez, akordatu zuten Lehendakariak jasotzea batuketa horretan jasotzen zutena. Hori dela eta, ez du ulertzen akordio horrengatik eskandalizatzea.

Muñoz jaunak esan du ez duela igoera ulertzen diru publikoarekin egiten delako. Gainera eskatu du aktan jasotzeko Garcia de Acilu jaunak etengabe ari dela haren hitzaldia oztopatzen.

Puntu honetan, bertaratutakoek gai honen inguruan eztabaida irekitzen dute, udal kazetak duen gastuarekin erlazionatuz.

Muñoz jaunak esan du igoera hori onartzea zaila dela baten batek dirua poltsikoratzen duenean.

Herrador jaunak esan du esamolde itxusia dela, eta eztabaida honekin ez duela zerikusia; hortaz, aktan jasotzea eskatzen du.

Berriro ere eztabaida hasten da, oraingoan Alkatearen diru-ekarpenekin alderatuz.

7.- MOZIOAK, ESKARIAK ETA GALDERAK.

7.1. ARABAKO MENDIALDEKO SUTEAK ITZALTZEKO ETA SALBAMENDU-RAKO ESKUALDEKO UNITATEARI (SISEU) BURUZKO MOZIOA

2014ko urrian Arabako Mendialdeko SISEU ireki zen Santikurutze Kanpezun. Gaur SISEU egunez jarduten du 12 ordu baino gutxiagotan; Vitoria-Gasteizko Udaleko langileak direnez, hiriburuko parkean fitxatzen dute eta taldea SISEUetara heltzen ez diren bitartean ez daude operatibo. Berdin gertatzen da irtetzeko orduan, fitxateka Vitoria-Gasteizen egiten baita. Horrek esan nahi du eguneko 12 ordu baino gehiago zerbitzua ez egongo ez balitz dagoela, 2014ko urria baino lehen gertatzen zen bezala.

Kanpezuko Udalak adierazten du suhiltzaileen parkeetan SISEU zerbitzu publikoa eraginkorra eta presentziala (eguneko 24 orduak, asteko 7 egunetan)behar duela izan, kalitatekoa, denbora osoko profesionala.

Horregatik, SISEU zerbitzua eraginkorra izan dadila eskatzen dugu kalitatekoa, denbora osoko profesionala eguneko 24 orduak, asteko 7 egunetan, ahalik eta lasterren eta Arabako Foru Aldundiaren esku.

Bozketara jarrita, aho batez onartu da.

Alkateak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; ez dira eman, ordea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak laurden gutxitan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.